

Bilatu



AGENDA ALBISTEAK ELKARRIZKETAK AMUAK KOMUNITATEA IRAKURLE TALDEEN MAPA BIDEOAK

ARTXIBOA ▾ SINADURAK ▾


ALBISTEAK

Hasiera » Albisteak » «Fiesta: Eguzkia jaikitzen da» itzuli du Koro Navarrok

«Fiesta: Eguzkia jaikitzen da» itzuli du Koro Navarrok

Astelehena, 2021-03-29

Literatura Unibertsala bilduma haziz doa poliki-poliki; gaur bertan, Ernest Hemingwayren eleberri ezagun bat aurkeztu dute: *Fiesta: Eguzkia jaikitzen da*. Koro Navarrok itzuli du, eta Ereinek eta Igelak argitaratu. EIZIE elkartearen arduratzen da, berriz, liburuak hautatzeaz eta itzulpenak esleitzeaz, lehiaketa bidez.



Ehun eta hirurogeita hemeretzigarren izenburura iritsi da Literatura Unibertsala bilduma. Ernest Hemingwayren *Fiesta: Eguzkia jaikitzen da* eleberria itzuli du Koro Navarrok. Autore estatubatuarren lehen eleberria izan zen hura, eta sona handia bildu zuen. Hain zuzen ere, autorearen lan klasikotzat jo ohi da.

«Parisen bizi diren eta idazle izan nahi duten kazetariamerikar batzuen ibilerak eta festarako gogoa kontatzen ditu Jake Barnesek, liburuko narratzaileak». Horrela laburbildu du Anjel Lertxundik, hitzaurrearen egileak, liburuaren muina. Argumentuak oso konplexua ez dirudien arren, beste faktore batzuetan datza liburuaren balioa, Lertxundiren esanetan «*Fiesta*» kontatzen dena ez litzateke bereziki in-teregarri, ez balitz bertan gertatzen diren peripeziaegunerokoak kontatzeko moduarengatik. *Kixoteari* gertatzen zaio. Edo *Denbora galduaren bilari*».

Besteak beste, obraren askotarikotasuna azpimarratu du Lertxundik: «badu trama estilizatu bat, harinagusietakoa, zeina den Brett Ashley erizainak kuadrillan eragiten dituen erreakzio sentimentalen kontakizuna; baina liburuak asko du erreportajetik ere (sanferminak protagonismo handia du); bada, gainera, oroitzapen-liburua; eta bada, halaber, bidaia-liburua ere».


Liburuak beste alderdi aipagarri bat da idazketa-estiloa, «esaldi laburrak, sintaxi bihurrik ez», kontakizunaren eritimoa: «Nobela guztian zehar zinemaren aipamenik ez badago ere [...] kamera baten begirada da narratzailearena. Gertakarien mugimenduak jasotzen ditu, baita sotilenak ere, eta kontakizun osoan eritimo bizi-bizia da nagusi [...] Ez naiz jatorrizkoaren eritimoa juzgatzeko gai, baina Koro Navarrok euskaraz emandakoa ereduagarria da euskarazko prosarentzat. Ekonomikoa bezain efikaza».

Navarrok, bestalde, itzulpenari buruzko gako batzuk aletu ditu, liburuaren hasieran, ohar batean. Izan ere, *Fiesta: Eguzkia jaikitzen da* roman à clef bat da, hau da, «egiazko gauzak kontatzen ditu» fikzioaren itxurarekin, eta, besteak beste, Euskal Herriko tokiak eta gertakariak deskribatzen dira bertan. Navarroren arabera, alde horretatik bereziki interesgarria da liburu euskaldunontzat: «Euskal Herrian garatzen da kontakizuna: Baionan, Donibane Lohizunen, Auritzen eta Irati ibaian, Donostian eta Iruñean. Euskal Herririk ez da hemen existitzen, ordea, Frantzia eta Espainia baizik. Euskaldunak bai: *the Basques*. Hemingwayrentzat, beste askorentzat bezala, baserritarrak».

HEMINGWAYREN BESTE LAN BATZUK EUSKARAZ

Hauxe da Hemingwayri euskarara itzuli dioten lan nabarmenetako bat; edonola ere, aurrez argitaratu dira, han eta hemen, haren kontakizun batzuk, eta bi liburu: *Agurea eta itxasoa* nobela itzuli zuten Gotzon Goenagak lehenik (Itxaropena, 1963) eta Joxemari Iturraldek gero (Elkar, 1986); bestalde, *Francis Macomber eta beste zenbait ipuin* narrazio-bilduma euskaratu zuten Javi Cillerok eta Xabier Olarrak 1998an, Igelaren eskutik.

IRUDIAK



Utzi zure iruzkina

Izena

E-posta

Osatu kanta:
"Hegoak _____ banizkio, nirea izango zen" (derrigorrezkoa, spam-aren kontra)

Idatzi zure iruzkina

Azken erreportajeak

Patricia Highsmithen mendeurrenean, errepaso bat haren euskarazko uztari

Ostirala, 2021-02-05

Aurtengo erreportajeak

Osteguna, 2020-12-31

(Durangoko Azoka) Poesia nobedadeak

Ostirala, 2020-12-04

Hitzen Uberanek 10 urte

Ostirala, 2020-11-20

Oier Guillanen iritzi-analisia: "Euskal teatroa(k)"

Ostirala, 2020-07-03

(Hegats 57) Antzerkia eta literatura: Sismografo eszenikoa

Asteazkena, 2020-06-17

(Hegats 57) Poeta kantariak? Hitzak doinuak adina balio duenean

Asteartea, 2020-05-26

Zergatik dira direnak emakume itzultzaileak?

Ostirala, 2020-03-27

Idazleen trabak eta saihesbideak

Ostirala, 2020-02-28

Poeta naiz ni

Astelehena, 2019-12-30

AGENDA **ALBISTEAK** **ELKARRIZKETAK** **AMUAK** **KOMUNITATEA** **IRAKURLE TALDEEN MAPA** **BIDEOAK**
ARTXIBOA **SINADURAK**

HARREMANETARAKO

Oier Guillan & Danele Sarriguarte
hitzenuberan@idazleak.eus

LEGE OHARRA

LAGUNTZAILEAK

